



## **AJANGIZKO UDALA**

### **AJANGIZKO UDALAK 2019KO MARTXOAREN 29AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

#### **Batzarreratuak:**

#### **Alkatea:**

*Saioa Etxebarria Bilbao andrea*

#### **Zinegotziak:**

*Ainhoa Odriozola Berriatua andrea  
Doro Astoreka Ajuriagoikoa jauna  
Alex Zubia Berriozabal jauna  
Iñigo Valencia Alacano jauna  
Ismael Oar-Arteta Undabeitia jauna*

#### **Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea:**

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2019ko martxoaren 29an, goizeko 11:00tan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

### **1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-**

2018ko abenduaren 12an ospatutako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

### **2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-**

- **Abenduaren 7ko 2018/119 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2018ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Abenduaren 7ko 2018/120 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizi-sare, Busturialdeko Garapen Iraunkorrerako elkartearen parte den einan, Ajangizko Udalak 2018ko 2.500,00 euroko ekarpenaren onarpena.
- **Abenduaren 7ko 2018/121 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abenduaren 7an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/19 faktura erlazioa onartzea.



## AJANGIZKO UDALA

- **Abenduaren 10eko 2018/122 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Alvarez Forestal S.A. enpresari, Mendatako Elosupe basotik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea (Eztilotza-Laubide).
- **Abenduaren 11ko 2018/123 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abenduaren 14rako, arratsaldeko 20:00etatik aurrera antolatu duen ekintzarako Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko baimena ematea.
- **Abenduaren 11ko 2018/124 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 77n burututako lanak bukatutzat ematea, eta aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, hondakinen kudeaketaren berme modura jarritako 443,71 euroak bueltatzea.
- **Abenduaren 12ko 2018/125 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendietako hiri gunerako zakarontzien horniketa Benito Urban enpresari esleitzea, 2012ko abenduaren 12an jasotako 5546781 aurrekontuan oinarrituta.
- **Abenduaren 20ko 2018/126 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Etxeetan frijitzeko erabiltzen den 2019 urteko olio bilketa zerbitzua RAFRINOR S.L. enpresari esleitzea, urteko 1.468,50 euroko kostuarekin (BEZ eta gainontzeko gastuak barne).
- **Abenduaren 21eko 2018/127 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2018ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Abenduaren 21eko 2018/128 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Artxube Dantza Taldeak aurkeztutako justifikazio agirietan oinarrituta, 898,98 euroko dirulaguntza onartzea, udal aurrekontuko 334 48102 partidari oinarrituta.
- **Abenduaren 21eko 2018/129 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ebazpenaren eranskin modura jasotako dokumentuan azaltzen diren eskaerak onartzea, 2018ko ekitaldian udal kirol instalazioetan norberak kirola egiteko bertan adierazitako dirulaguntza eskarien %100 onartuz. Dirulaguntzaren kopuru osoa 3.730,54 eurokoa da.
- **Abenduaren 21eko 2018/130 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ebazpenaren eranskin modura jasotako dokumentuan azaltzen diren eskaerak onartzea, 2018ko ekitaldian euskara ikastaroak egiteko bertan adierazitako dirulaguntza eskarien %100 onartuz. Dirulaguntzaren kopuru osoa 43,07 eurokoa da.
- **Abenduaren 21eko 2018/131 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ebazpenaren eranskin modura jasotako dokumentuan azaltzen diren eskaerak onartzea, 2018ko ekitaldian familia ugariak bertan adierazitako hainbanaketa egin ondorengo dirulaguntzak onartuz. Dirulaguntzaren kopuru osoa 600,00 eurokoa da.
- **Abenduaren 20ko 2018/132 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abenduaren 20an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/20 faktura erlazioa onartzea.
- **Abenduaren 20ko 2018/133 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2016ko maiatzaren 19an sinatutako hitzarmenean oinarrituta, Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ri 1.000,00 euro ordaintzea, 2018ko diru laguntza modura.
- **Abenduaren 26ko 2018/134 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Partiden arteko transferentzia bidezko kreditu aldaketa onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2018/135 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2018 urteari dagokion etxeetara konektatutako argindar publikoaren kostua onartzea, guztira 1.440,95 euro.
- **Abenduaren 31ko 2018/136 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2018ko 4. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2018/137 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak 2018 urtean gizarte larrialdietarako erabili ez duen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari bueltatzea, guztira 1.432,02 euro.
- **Abenduaren 31ko 2018/138 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** C-4630-BBZ matrikuladun ibilgailuari zergaren salbuespena onartzea 2019 urtetik aurrera, bera barne.




## AJANGIZKO UDALA

- **Abenduaren 31ko 2018/139 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Obligazio eta eskubideen anulazio eta zuzenketa onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2018/140 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abenduaren 31n Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/21 faktura erlazioa onartzea.
- **Abenduaren 31ko 2018/141 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Partiden arteko transferentzia bidezko kreditu aldaketa onartzea.
- **Urtarrilaren 8ko 2019/001 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Uriarte Atzekoa baserriaren erdi mendebaldea zaharberritzeko baimen baldintzatua.
- **Urtarrilaren 9ko 2019/002 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko herri bideak erabiltzeko jarritako fiantzaren itzulketa.
- **Urtarrilaren 9ko 2019/003 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko herri bideak erabiltzeko jarritako fiantzaren itzulketa.
- **Urtarrilaren 9ko 2019/004 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko herri bideak erabiltzeko jarritako fiantzaren itzulketa.
- **Urtarrilaren 10eko 2019/005 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek “Renovación red abastecimiento polígono Arabieta en Ajangiz ” proiektuan oinarrituta egindako lanak bukatutzat ematea.
- **Urtarrilaren 10eko 2019/006 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek “Conexión agua potable red primaria Busturialdea” proiektuan oinarrituta egindako lanak bukatutzat ematea.
- **Urtarrilaren 16ko 2019/007 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu auzoko biztanleguneko P2N-62B partzelaren urbanizazio eta itxitura lanetako baimen baldintzatua.
- **Urtarrilaren 17ko 2019/008 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Nabarnizko Udalak egindako likidazioa eta aurkeztutako fakturak onartuz, 2017 eta 2018 urteetako pilen bilketa eta errezikleta zerbitzuari dagozkion 165,60 euro ordaintzeko agindua ematea.
- **Urtarrilaren 24ko 2019/009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 44ko Antzosolo baserriko estalkiaren erreteila lanetarako baimen baldintzatua.
- **Otsailaren 5eko 2019/010 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Burdibide enpresari, 5. Poligonoko 137 eta 154 eta 6. Piligonoko 45, 46 eta 47 sailetatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea (Arabieta-Mentzeta-Lauibide-Laruze).
- **Otsailaren 6ko 2019/011 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Urtarrilaren 17an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/01 faktura erlazioa onartzea.
- **Otsailaren 6ko 2019/012 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Urtarrilaren 31n Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/02 faktura erlazioa onartzea.
- **Otsailaren 11ko 2019/013 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek 2019ko urtarrilaren 17an aurkeztutako alegazioak ez onartzea.
- **Otsailaren 11ko 2019/014 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2018ko aurrekntuko kontuen likidazioa onartzea.
- **Otsailaren 13ko 2019/015 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Martxoaren 8rako, udaletxeko karpak (6x3koa bat eta 3x3ko beste bat) erabiltzeko baimena.
- **Otsailaren 13ko 2019/016 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Goizale Mendi Taldeari otsailaren 17an Kanpantxuko frontoia erabiltzeko baimena
- **Otsailaren 13ko 2019/017 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 49, Auzokoa baserriko fatxadatik argindar koadroa kendu eta bere lurretan zotoin berri bat jartzeko baimena



## AJANGIZKO UDALA

- **Otsailaren 13ko 2019/018 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Burdibide enpresari, 6. Poligonoko 43 sailatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimena (Arabieta-Mentzeta-Lauibide-Larruze).
- **Otsailaren 14ko 2019/019 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Otsailaren 14an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/03 faktura erlazioa onartzea.
- **Otsailaren 14ko 2019/020 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 4609-BPN matrikuladun ibilgailuari zergaren salbuespena onartzea 2019 urtetik aurrera, bera barne.
- **Otsailaren 15eko 2019/021 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalari EUDELeko bazkide modura dagokion 2019 urteko 300,51 euroko kuota ordaintzea.
- **Otsailaren 15eko 2019/022 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2019ko Udalbiltzako 1.000,00 euroko kuota ordaintzeko agindua ematea, udal aurrekontuko 920.481.04 partida aplikatuta.
- **Otsailaren 2ko 2019/023 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Artxube Dantza taldearentzat erropa eta osagarriak Trapu Zarrak enpresari esleitzea 2.304,00 euroko kostuarekin (BEZ barne), 2019ko otsailaren 19ko aurrekontuan oinarrituta.
- **Otsailaren 20ko 2019/024 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko dinamizazio zerbitzurako baliabide eza.
- **Otsailaren 21eko 2019/025 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko dinamizazio zerbitzua kontratatzeko prozedura ireki bidezko espedientearen hasiera onartzea.
- **Otsailaren 25eko 2019/026 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko dinamizazio zerbitzua kontratatzeko prozedura ireki bidezko espedientea, baldintza administratiboen eta teknikoen pleguak onartzea, lizitazioa Kontratazio profilean argitaratzeko aginduarekin.
- **Otsailaren 25eko 2019/027 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 14ko Aristieta-Aurrekoa baserriko estalkia zaharberritzeko baimena.
- **Otsailaren 26ko 2019/028 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2018ko aurrekontutik datorren 920.22101 partidako betebeharren saldoa zuzentzea, 4,41 euro gutxituz.
- **Otsailaren 27ko 2019/029 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 29, Mendieta-Goiti baserriko beheko solairua berrantolatu eta hiru leiho aldatzeko baimena
- **Otsailaren 27ko 2019/030 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Muxikako Udalari 2019ko otsailaren 28rako 50 aulki ustea.
- **Martxoaren 1eko 2019/031 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Martxoaren 1ean Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/04 faktura erlazioa onartzea.
- **Martxoaren 6ko 2019/032 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalari Gernikaldeko Behargintzako partaide modura dagokion 1.394,27 euroko kuota ordaintzea, 2018ko ordainketa modura.
- **Martxoaren 11ko 2019/033 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 11, Bekoetxebarri baserriaren aurrekaldeko eraikin lagungarria lekuz aldatu eta zaharberritzeko lanak burutzeko baimena
- **Martxoaren 11ko 2019/034 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 14ko Aristieta-Aurrekoa baserriko iparraldeko estalkia zaharberritzeo baimena
- **Martxoaren 11ko 2019/035 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Hauteskundetarako publizitatea eta ekintzak burutzeko tokiak zehaztea.
- **Martxoaren 13ko 2019/036 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Jose Antonio Echevarria Echevarria jaunari, Mendatako 1. Poligonoko 180 sailatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea (Muxika-Laubide-Estilotza).



## **AJANGIZKO UDALA**

- **Martxoaren 13ko 2019/037 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 12ko Obieta baserrian zaharberitze eta esku-hartze lanetarako baimen baldintzatua
- **Martxoaren 14ko 2019/038 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Martxoaren 14an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/05 faktura erlazioa onartzea.
- **Martxoaren 20ko 2019/039 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurrra ateratzeko herri bideak erabiltzeko jarritako bermearen itzulketa.

### **3.- 2019KO URTARRILAREN 1EAN AJANGIZKO UDAL ERROLDAN DAUDEN BIZTANLE KOPURUAREN EDO DATUEN BERRI EMATEA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalerriko biztanle kopurua, udal erroldaren berriskuspena egin eta gero, 477koa da. Horietatik 249 gizonak dira eta 228 emakumeak.

477koa da beraz 2019ko urtarrilaren 1eko biztanle kopuru ofiziala. Datu hau Errolda Kontseiluaren azterketarako bialtzen da eta ondoren Gobernuari ematen zaio kopurua.

### **4.- MOTORDUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN 2019KO PADROIAREN ONARPENEA, BEHAR BADA.-**

2019 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda 2019ko martxoan burututa, guztira 25.143,00 euroko kopuru horokorra eskaintzen du. Horietatik 18.643,00 euro domiziliatuak lirateke (251 errezibo) eta 6.500,00 domiziliatu gabeak (90 errezibo). Guztira 344 ibilgailu daude Ajangizko erroldan.

2019 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda aurkeztuta, Udalbatza osoak aho batez ondorengoa

#### **ADOSTEN DU:**

**Lehenengo.-** 2019 urteko Trakzio mekaniko ibilgailuei dagokion Zerga Errolda onartzea.

**Bigarren.-** Tributuei buruko Abenduaren 28ko 230/63 Lege Orokorreko 124. atalak eta martxoaren 26ko 3/86 Tributuen Foru Arau Orokorreko 125.2 artikuluan araututakoarekin bat, irgarki honek Trakzio Mekanizko Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez zergapekoei zuzendutako jakinerazpen kolektiboaren ondorioak izango ditu.

**Hirugarrena.-** Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hamabost (15) eguneko epean, errolda jendaurrean arkezten da, interesdunek errolda aztertu eta bidezko deritzaten alegazio edo erreklamazioak aurkezterik izan dezaten.

**Laugarrena.-** Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, errolda behin betiko onartutzat joko da.

Non. Noiz eta nola ordaindu



## **AJANGIZKO UDALA**

.- Borondatezko ordainketa, gaoionardainik gabekoa.

a) Epea: 2019ko ekainaren 15etik abuztuaren 16ra (bi egun horiek barne).

b) Non eta nola ordaindu: Domiziliatu gabe dituzten zordunek, Banketxean edo Udaletxean jendaurreko ordutegian ordaindu dezakete, dagozkien inprimakia aurkeztuz. Zergadunek ordainagiriak banketxean helbideratu dezakete.

Inprimakiak jaso ez izana edota ordainagiritan akatsen bat egoteak ez du ordaindu beharra salbuesten.

Borondatezko epea igarota ordainketa burutuko ez balitz, premiabidez kobratzeari ekingo zaio, Bilketarako Erreglemendu orokorreko 95 eta 96 artikulua aplikatuz, %20ko gainordainaz, berandutze interesak, gastuak eta kostua gehituz.

Indarreango xedapenen arabera, zerga honen ordainketa gauzatu ezean, ezin izango da ibilgailuaren alta, baja zein eskualdaketarik egin.

### **5.- 2018KO 4. HIRUHILEKO ORDAINKETA EPEEI BURUZKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Idazkari Kontuhartzaileak, 2018ko 4. hiruhileko ordainketa epeei buruz 2019ko urtarrilaren 16an eginako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2019ko urtarrilaren 17an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako ziengotziak jakitun geratzen dira.

Txostenaren emaitzaren arabera, Ajangizko Udaleko 2018ko 4. hiruhileko datuek zera adierazten dute:

#### **4. Hiruhilekoan:**

- 1) Ajangizko Udalak ordainketen %100 legezko epean burutu dituela
- 2) Ajangizko Udalaren ordainketa epearen media 2,08 egunekoa da.
- 3) Hiruhilekoaren bukaeran ordaintzeko dauden fakturen %100 ordainketarako legezko epea barruan daudela.

Urte osoan zehar burututako ordainketak kontutan hartuta, guztira 806 ordainketa izan dira, 230.248,77 euroko kostuarekin. Ordainketaren bataz bestekoa egunetan, 9,33 egun izan da eta epez kanpoko fakturarik ordaindu ez denez, ez da atzerapen interesik ordaindu.

### **6.- 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Alkate udalburuak 2018ko aurrekontuaren likidazioaren espedientea aurkeztu du Udalbatzara. Likidazioa, 2019ko otsailaren 11ko 2019/014 Dekretu bidez onartu zen, eta laburbilduta gerakinari dagokionez honako emaitza eman zuen:





**AJANGIZKO UDALA**

<b>REMANENTE DE TESORERIA</b>	
FONDOS LIQUIDOS DE TESORERIA:	1.593.457,30
DERECHOS PENDIENTES DE COBRO:	8.123,11
+ del Presupuestos corriente	7.319,00
+ de Presupuesto cerrados	282,00
+ Operaciones no presupuestarias	522,11
OBLIGACIONES PENDIENTES DE PAGO:	80.489,60
+ del Presupuestos corriente	14.274,91
+ de Presupuesto cerrados	
+ Operaciones no presupuestarias	66.214,69
PARTIDAS PENDIENTES DE APLICACION:	1.521.090,81
- cobros realizados pendientes de aplicación definitiva	
+ pagos pendientes de aplicación definitiva	
<b>I. Remanente de tesorería total (1+2+3+4)</b>	<b>1.521.090,81</b>
II. Saldos de dudoso cobro	
III. Exceso de financiación afectada	100.000,00
<b>IV. Remanente de tesorería para gastos generales (I-II-III)</b>	<b>1.421.090,81</b>

CONCEPTOS	DERECHOS RECONOCIDOS NETOS	OBLIGACIONES RECONOCIDAS NETAS	RESULTADO PRESUPUESTARIOS EJERCICIO CORRIENTE
a) Operaciones corrientes	689.744,98	456.932,01	232.812,97
b) Operaciones de capital			
c) Activos financieros	0,00	211.131,10	-211.131,10



## AJANGIZKO UDALA

d) Pasivos financieros	0,00	0,00	0,00
	0,00	0,00	0,00

### I. RESULTADO PRESUPUESTARIO DEL EJERCICIO CORRIENTE (I=a+b+c+d)

**21.681,87**

CONCEPTOS	ANULACION DE DERECHOS RECONOCIDOS	ANULACION DE OBLIGACIONES RECONOCIDAS	RESULTADO PRESUPUESTARIO EJERC. CERRADOS
a) Operaciones corrientes	0,00	95,70	95,70
b) Operaciones de capital.	0,00	0,00	0,00
c) Activos financieros	0,00	0,00	0,00
d) Pasivos financieros	0,00	0,00	0,00

### II. RESULTADO PRESUPUESTARIO DE EJERCICIOS CERRADOS (II=a+b+c+d)

**95,70**

AJUSTES	
a) Creditos gastados financiados con remanente de tesorería para gastos generales	0,00
b) Desviaciones de financiación negativas del ejercicio	0,00
c) Desviaciones de financiación positivas del ejercicio	0,00

### III. TOTAL AJUSTES (III=a+b+c)



**0,00**

### RESULTADO PRESUPUESTARIO AJUSTADO (I+II+III)

**21.777,57**

SITUACION DE REMANENTES	
<b>Comprometidos:</b>	<b>4.009,88</b>
Retenidos:	0,00
Autorizados:	0,00
Disponibles:	472.157,55





## **AJANGIZKO UDALA**

No Disponibles:	0,00
<b>No comprometidos:</b>	<b>472.157,55</b>
<b>Total:</b>	<b>476.167,43</b>

Bertaratutako zinegotziek jakintzat jotzen dute beraien burua.

### **7.- 2018KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikulua araututakoa betez, Ajangizko Udaleko 2017ko kontu orokorrak jendaurrean aurkeztu ziren (2019ko martxoaren 7an 47. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

Jendaurreko epean inolako alegazio ezta erreklamaziorik aurkeztu ez zela kontutan hartuta,

Udal Osoko Bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez ebazten du:

2018ko Udal Aurrekontuko Kontu Orokorrak onartzea.

### **8.- AURREKONTU LUZATUKO SALDOEN ZUZENKETA, BEHAR BADA.-**

Udal aurrekontuarn datuak aztertuta, Idazkari-Kontuhartzaileak akats batzuk nabaritu ditu aurrekontuz kanpoko zordun eta hartzekodunen partidetan, baita 20200 partidari ere Gozarte Segurantzaren zor modura.


2019ko otsailaren 25ean Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostena aztertuta eta Ogasun Batzordeak 2019ko martxoaren 1ean egindako proposamena kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez ebazten dute:

Lehenengo.- Kontabilitatean ikusita akatsak direla eta Idazkari-Kontuhartzaileak 2019ko otsailaren 25ean egindako txostenean oinarrituta, saldoen zuzenketa onartzea.

Bigarren.- Erabakiaren berri udal Idazkari-Kontuhartzailetzari ematea, dagozkion neurriak hartu ditzan.

### **9.- 2019KO UDAL AURREKONTUAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak, aurrekontuak legeak arautzen dituen baldintzak kontutan hartu dituela azaltzen du, gastuaren gehiengoa, estabilitatea...



## AJANGIZKO UDALA

Behin onartu ondoren, Foru Arauen arabera gerakina gehitzeko aukera ere izango dela aipatzen du.

Aurrekontua 708.869,00 euroko sarrera eta 653.483,59 euroko gastuarekin aurkezten da. Diferentzia honen zergatia, aurrekontuaren egonkortasuna, besteak beste arautzen duen gastuaren arauak dauka, ez bait du kopuru horren gainetik gasturik onartzerik usten.

Aurkezten den gastuen aurrekontu proposamenean, laburbilduta, honako hau jasotzen dela azaltzen du:

1. Kapituluak, gizarte laguntzarako partidaren bereizketa mantentzen da, zerbitzuen kostua kalkulatzekoan argi agertu daiten. 2019rako ganera, funtzionario eta lan-itunpeko langileen arteko diferentzia ere egiten da, gastuaren islada argiagoa izan daiten. Horrez gain egindako aldaketak egoeraren egokitzapenerako izan dira: aintzinasunak...

2. Kapituluak, aurreko urteko gastuak kontutan hartuta, kalkulatu da, zenbait kasutan sortu ahal izan den gasturen bat gehitu eta beste batzuk kenduta.

4. Kapituluak kuotak eta diru laguntzak jasotzen ditu. Diru laguntzen kasuan, ondorengo puntuan eranskina aurkezten da plenoaren onarpenerako.

6. Kapituluak: inbertsioei dagokienez, oinarrizkoenak hartu dira kontutan, gastuaren arauak ahalmentzen duenaren arabera.



Alkatetzak 2019 urteko Udal aurrekontuen behin behineko onarpenerako aurkeztu duen zehaztapidetza osoa kontutan hartuta.

Zehaztapidetza hori osatzen duten honako dokumentu hauek aztertuta:

- .- Ekitaldian kitatzeko sarrera eta gastuen egoera estimatua
- .- Aurrekontuaren edukinari eta aldaketa nagusienei buruzko memoria
- .- Burutu beharreko inbertsioen eranskina
- .- Konpromiso kredituei buruzko ziurtagiria
- .- Transferentzia arrunt eta kapital transferentziei buruzko eranskina
- .- Pertsonalari buruzko eranskina
- .- Udal Aurrekontuen exekuzio araua.

Aurrekontu orokorra honako sarrera eta gastuen kapitulutan banatuta aurkezten da:

GASTUAK		SARRERAK	
I. KAPITULUA	220.072,56	I. KAPITULUA	124.000,00
II. KAPITULUA	340.294,42	II. KAPITULUA	20.000,00
III. KAPITULUA	-----	III. KAPITULUA	91.266,00
IV. KAPITULUA	37.882,61	IV. KAPITULUA	469.963,00
V. KAPITULUA	-----	V. KAPITULUA	3.640,00
VI. KAPITULUA	55.234,00	VI. KAPITULUA	
VII. KAPITULUA	-----	VII. KAPITULUA	



## AJANGIZKO UDALA

IX. KAPITULUA	-----	IX. KAPITULUA	
<b>GUZTIRA</b>	<b>653.483,59</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>708.869,00</b>

Idazkari kontuhartzailearen eta Ogasun Batzordearen aldeko txostenetan oinarrituta, 2019 urterako udal aurrekontua, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio araua botaziora aurkeztuta bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2 ko 10/2003 Foru Arauak, 15 artikuluan xedatzen duenaren arabera, jendaurrean jarriko da, Udal honetako Idazkaritzan aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko.

Delako 10/2003 Foru Arauaren 17. artikulua arabera horretarako eskubidea izan dezaketen interesatuek, beraien erreklamazioak 15 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dituzte, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak Udalbatzaren aurrean aurkeztu beharko dira.

Adierazitako informazio epea igaro ondoren erreklamazio edo oharrik aurkeztuko ez balitz, aipaturiko Aurrekontu Orokorra behin betiko onaturik dagoela ulertuko da, akordio berririk zertan hartu gabe.

### **10.- AJANGIZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak, 2019-2022 Ajangizko dirulaguntzen plan estrategikoaren aurkezpena egiten du.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzko izaera duenez, dirulaguntzak emateko asmoa duen Udal orok onartu behar du berari dagokion Dirulaguntzen Plan Estrategikoa. Aurrekoa 2015-2018rako onartu zela kontutan hartuta, Ajangizko Udalari berria onartzea dagokio oraingoan.

Horren arabera aurkeztu da Plan Estrategiko hau, 2019rako aurreikusitako dirulaguntzen eranskinarekin batera. Eranskinak eragina izan dezan, 2019ko aurrekontua behin betiko onartua egon beharko da, eta ondorioz, bere indarrean jartzea baldintza horri lotuta egongo da.

Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute ondoren transkribatzen den Plana.

### **DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA**

#### **ATARIKOA**

*Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzko izaera duenez, dirulaguntzak emateko asmoa duen Udal orok onartu behar du berari dagokion Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.*



## **AJANGIZKO UDALA**

*Azaroaren 17ko dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozeduaren beste urrats bat da. Legearen printzipio zuzentzaileetako bat gardentasuna da eta Legeak arautzen dituen tresna sorta zabalarekin batera, horrek eragin zuzena izango du dirulaguntzen bidezko gastu publikoaren kudeaketaren efizientzia eta efikazia mailak igotzeko.*

*Hori dela eta, dirulaguntzen inguruan informazio gehiago izateak, merkatuan eragin ditzaketen distortsioak eta interferentziak ezabatuko ditu eta, gainera, Herri Administrazioen jardueren osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein gainezarpn alde batera utziz.*

*Efikazia hobetzeko, legerian Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egin beharra aurreikusten da, urte anitzekoa eta dirulaguntzak sortu aurretik edo Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritako eran Udalbatzak irabazi asmorik gabeko fundazioekin egin ditzakeen lankidetzahitzarmenak sortu aurretik gauzatu beharrekoa.*

*Honenbestez, Udal honek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du, honako artikulua dituen.*

### **HELBURU OROKORRAK**

- *Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan arautzen duen dirulaguntzak eman nahi dituzten Udalei Plan Estrategikoa onartzeko agindua betetzea.*
- *Era zuzenean, Dirulaguntzen gastu publikoaren eraginkortasunaren gehikuntzan eragina izatea.*
- *Herritarrei dirulaguntzak jasotzeko aukerak erraztea, gardentasun, udal irizpideen berdintasuna eta partaidetza librea bermatuz.*
- *Dirulaguntzetarako udal kudeaketa razionalizatzea zeharkako planifikazioa erreztuz, prozedurak sistematizatuz eta ebaluaziorako baliabide teknikoak jarritz.*

## **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. ARTIKULUA**

*Ajangizko Udalak 2019-2022 urteetan eskainiko dituen dirulaguntzek Plan honetan araututakoa beteko dute.*

### **2. ARTIKULUA**

*Plan honetan agertzen diren dirulaguntzen onarpenak, urte bakoitzeko aurrekontuetan dagozkion partidak onartzea ekarriko du eta kasuan kasu, dirulaguntzak emateko arauak jasotzen dituzten Ordenantzak onartzea.*

### **3. ARTIKULUA**

*Dirulaguntzen onarpena aurrekontuaren egonkortasun helburuak betetzera baldintzatuta egongo da. Horren arabera, onartzen diren aurrekontu kontsignazioak eta banaketarako oinarri arautzaileak helburu horietarako egokituko dira une oro.*

### **4. ARTIKULUA**



## **AJANGIZKO UDALA**



*Dirulaguntzetarako Plan Estrategikoaren onarpenak ez du inolako eskubiderik sortzen ahalezko honuradunengan. Ahalezko honuradun hauek ezin izango dute kalte-ordain edo kompensaziorik eskatu Plana burutzen baldin ez badan.*

### **5. ARTIKULUA**

*Ajangizko Udalak, dirulaguntzak jendaurreko deialdi bidez eskainiko ditu, kontzesio zuzen edo izendunen kalterik gabe, beti ere indarreango araudiaren arabera aurretik aurrekontuetan izan behar duten kontzignazioarekin.*

*Kontzesioa, aurretik deialdian jarritako irizpide objetiboz egingo da, ahalezko honuradunei irizpide horiek aurretiaz ezagutzeko aukera emanez.*

### **6. ARTIKULUA**

*Kudeaketa ekonomikoaren arduraduna, eta ondorioz Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren exekuzioaren arduraduna, laguntza edo dirulaguntzak emateko eskuduna, Alkatetza izango da.*

*Horren arabera,*

- ✓ Dirulaguntzetarako programak aurrekontuan diru-hornidura egoki eta nahikoa izatera baldintzatuta egongo dira.*
- ✓ Dirulaguntza edo kontzesio zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik, Ajangizko Udaleko aurrekontu arauetan jasotzen den modura gastuaren onarpena egin beharko da.*
- ✓ Dirulaguntzak eman aurretik, kontzesioa arautuko duten arau eta oinarriak onartu beharko dira.*

### **7. ARTIKULUAK**

*Ajangizko Udalak urtero gizarte ekintza, kultura eta gazteria, kirola, aisialdia, denbora libre, hezkuntza, garapen ekonomikoa bezalako gaietarako dirulaguntzak onartuko ditu, honako baldintza hauek zehaztuz:*

- Lortu nahi diduzten helburuak*
- Emakida mota*
- Nori zuzenduak dauden*
- Kopuru ekonomikoa*
- Aurrekontuko aplikazioa*

### **8. ARTIKULUA**

*Eranskinean aurrekontuan jasotako dirulaguntzak jasotzen dira, irizpide hauekin:*

- **Objektua.** Dirulaguntza zertarako izango den azaltzen da. Ebaluazioan objektua bete den aztertuko da.*
- **Kudeaketa mota.** Dirulaguntzaren emakidarako jarraituko den prozedura azalduko da.*
- **Kopurua.** Dirulaguntza bakoitzerako aurreikusitako diru kopurua.*



## AJANGIZKO UDALA



## ERANSKINAK DIRULAGUNTZAK 2019

GIZARTE EKINTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK						
Deskribapena	Hartzailea	Emakida mota	Bete arazteko epea	HELBURUAK	2019 Aurrekontua	Partida
FAMILIA UGARIANTZAKO DIRULAGUNTZAK	AJANGIZKO FAMILIA UGARIAK	LEHIA LIBREA	2019	<b>Helburua:</b> Udalerriko familia ugariet dituzten kargak harintzea familia horien integrazioa ahalbideratu eta udal ekintzetarako helbideragarritasuna erretuz. <b>Lortu nahi diren emaitzak:</b> Udalerriko familia ugariet laguntza ematea, biztanle kopurua gehitzeko asmotan.	800,00 €	920.48000

HEZKUNTZA, KULTURA ETA EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK						
Deskribapena	Hartzailea	Emakida mota	Bete arazteko epea	HELBURUAK	2019 Aurrekontua	Partida
EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA PARTIKULARRAK	HERRITARRAK	LEHIA LIBREA	2019	<b>Helburua:</b> Udal herritarren artean euskararen ezagutza eta erabilera gehitu. <b>Lortu nahi diren emaitzak:</b> Euskara udal herritarren artean eguneroko bizitzarako hizkuntza modura mantendu eta sendotu daitela.	1.000,00 €	335.48002
KULTURA IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZA PARTIKULARRAK	HERRITARRAK	LEHIA LIBREA	2019	<b>Helburua:</b> Udalak eskaini ezin dituen eta beste udal batzuek eskaintzen dituzten Kultur jardueretan Ajangizko herritarren partaidetza sustatzea, musika, hizkuntzak, antzerkia, argazkilaritza, marrazketa... <b>Lortu nahi diren emaitzak:</b> Herritarren Kultura aurkerak handitzea eta disciplina desberdinetarako atak zabaltzea.	2.000,00 €	334.48005
ARTXUBE DANTZA TALDERAREKIN HITZARMENA	ARTXUBE DANTZA TALDEA	ZUZENA	2019	<b>Helburua:</b> Udalerriko ekintza kulturala indartzea eta jarraibiderako baliabideak eskaintzea. Udalerriko gazteen artean giza, pertsona eta kultura garapena sustatzea. <b>Lortu nahi diren emaitzak:</b> Udalerriko ekintza kulturala hobetu eta gehitzea eta Ajangizen euskal dantzak sustatu eta zabaltzea.	1.000,00 €	334.48102
LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.L.REKIN HITZARMENA	LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDE AK S.L.	ZUZENA	2019	<b>Helburua:</b> Eskualde eta kasuan kasu probintzian, euskarazko komunikabideen garapena sustzea. <b>Lortu nahi diren emaitzak:</b> Komunikabide hauei laguntza ekonomikoa.	1.300,00 €	335.47100

KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK						
Deskribapena	Hartzailea	Emakida mota	Bete arazteko epea	HELBURUAK	2019 Aurrekontua	Partida
KIROLERAKO	HERRITA-	LEHIA	2019	<b>Helburua:</b> Udalerriaren artean kirol ekintza	5.000,00 €	341.48005



## AJANGIZKO UDALA



DIRULAGUNTZA	RRAK	LIBREA		bultzatzea. <b>Lortu nahi diren helburuak:</b> Udalerrian ez dauden edo eskaintzen ez diren ikastaro edo ekipamentuetan parte hartzeko aukera ematea.		
--------------	------	--------	--	--	--	--

*Eranskinak ez du eraginik izango 2019ko udal aurrekontua behin betiko onartzen ez den artean.*

### 11.- AJANGIZKO UDALEKO 2019 URTEKO DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Goian aipatutakoarekin bat, batzarreratutako zinegotziek aho batez onartu dute 2019 urterako dirulaguntzen eranskina, beti ere, bere indarrean jartzea 2019ko aurrekontua behin betiko onartua egotera baldintzatuta egongo dela zehaztuz.

### 12.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate andreak, Udalak 21. Korrikarako kilometroa eskuratzea onartu duela jakinerazten die bertaratutakoei.

- Alkateak, udal operariaren egoera berriaren berri ematen du, gizarte segurantzak baja eman diola aipatuz. Bi urtetan egoera berraztertu daitekeela kontutan hartuta, orain arte bere ordezkotza egiten ari den langile bera mantendu beharko da, plaza ateratzeko aukera izan bitartean.

- Kultur Etxeari dagokionez, dinamizaziorako kontratazio berriaren lizitazioa burutu dela azaltzen du Alkateak. Legeak agindutakoa betez lizitazio elektronikoa egin da prozedura irekia erabilita. Eskaintza bakarra jaso da tramitazioan, KIRIK S.Coop. enpresarena, eta kontratazioaren tramitazioarekin aurrera jarraitzen dugu.

- Ajangiz Zabaltzen APP berria ere martxan jarri dela aipatzen du Alkateak, udala eta herritarren arteko kontaktua errezteko asmoarekin. Aurkezpena Kultur Etxean egin zen martxoaren 14an, eta orain herritarren artean zabalduz joatea espero da.

- Bukatzeko, Alkateak Behargintzako eskualdeko enplegu planaren bitartez, bideen desbrozea burutu dela aipatzen du. Komentatzen duenez, lanak burutu ondoren izan dira beste landa-bide batzuen garbiketa proposatu duten herritarrak, eta proposamen honek egitera animatzen ditu zinegotziak, hurrengorako burutuko beharrezko lanen zerrenda bat egin ahal izateko.

- Ainhoa Odriozola zinegotzi andreak, Mendietako plazan dauden umeen jolasen egoeraren berri ematen du. Jolasak zahartuta daude eta zubitxoan egurra apurtuta dago. Umeek min hartu dezaketela kontutan hartuta, hori konpondu edo jolas berriak jartzeko proposamena egiten du.





## **AJANGIZKO UDALA**

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da eguerdiko 12:00etan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA  
Saioa Etxebarria Bilbao

BITARTEKO IDAZKARIA  
Saioa Pineda Aranburu

